

# txintxarri



## Atsedetik gabeko festa izan da Sasoetan

Hiru egunez adin guztientzako ekintzak egin dituzte Sasoeta auzoko jaietan / 4

TXINTXARRI

## Erremate ederra

50. urteurreneko azken ekintzak egingo ditu Erketz EDTk: emanaldia eta bazkaria / 6-7

Andaluziako kultura sustatzeko ekintza ugari antolatu du **Semblante Andaluz elkarteak** / 5

Euskaraldiarekin bat egin du **Lasarte-Oria Bai! Krosak: 1 dortsala eramango du hamaikakoak** / 10



R.P.S. 175/15 I.L.G.

2 mó graduatu  
erreflexuen aurkako lenteekin

99€

[www.multioplicasgipuzkoa.com](http://www.multioplicasgipuzkoa.com)

Arrasate • Beasain • Bergara • Donostia  
Eibar • Errenteria • Irun • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.  
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15  
Tel.: 943 37 74 55  
LASARTE-ORIA

**MULTIÓPTICAS**  
lehena zerbitzu optikoetan



Zinegotzi guztiek bat egin dute Euskaraldiaren aldeko adierazpenarekin. TXINTXARRI

## Euskaraldiarekin bat egin du udalbatzarrak

Urriko ohiko bilkuran gardentasunari buruzko mozioa onartu dute aho batez, ADLOP taldeak proposatuta: alderdiek gastu guztiak justifikatu beharko dituzte. Horrez gainera, inauterietako programei diru laguntzak emateko oinarriak ere adostu dituzte

### Adrian Garcia

Eztabaida gutxiko udalbatzarrak izan da urrikoa. Joan den asteko asteartean bildu ziren udal ordezkariak, eta gai zerrendako puntu guztiak adostu zituzten, gehienak aho batez. Adibidez, Euskaraldiaren aldeko adierazpen bateratua; babesa eman diote zinegotzi guztiek. Halere, EH Bilduko Pablo Barriok eskatu du euskararen aldeko jarrera adierazpen soil batean ez geratzeko. ADLOP Ahal Du Lasarte-Oria Podemos taldeak aurkeztutako mozioa ere aho batez onartu dute, gardentasunari buruzkoa, zuzenketa tekniko baten ostean.

Beste zenbait gai ere landu dituzte: kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko txostena. PSE-EEren zazpi botoak nahikoak izan dira horretarako, gainerako bederatzi zinegotziak abstenitu egin baitira. ADLOPeko Alicia Garcia ez da batzarrerara bertaratu.

Hurrengo urterako taxien tarifak ere onartu dituzte, ADLOPeko bi abstentziorekin. Bestalde, inauteri jaietako jardueren programei diru laguntzak emateko oinarriak alderdi guztien babesa jaso du.

### Euskara eta udala

Zinegotzi guztiak euskara sustatzearen alde agertu dira, udal barruan zein kanpoan. Adierazpen instituzionala onartu dute aho batez. Horren bitartez, udala konprometitu da ahobiziak eta belarriprestak aktibatzea udaleko langileen artean. Gainera, udalak neurriak hartuko ditu hizkuntza praktika ahalbidetzeko, udalerrirako osoan.

Jon Antxordoki EAJko bozeramailea eta Euskara Batzordeko buruak eskerrak eman dizkie udal ordezkariak, eta Euskaraldira gonbidatu ditu.

Barriok ere txalotu du udalbatzarraren jarrera, baina

zalantzak agertu ditu: "Adierazpenak praktikara eraman behar dira". Izan ere, EH Bilduko ordezkariak orotarazi du udalak euskara eskakizunak apaldu dituela hainbat lanpostutan.

Azkenik, ADLOPek gardentasunari buruzko mozioa aurkeztu du, diru publikoa jasotzen duten alderdiek haien gastuak aurkeztu ditzaten urtero. PSE-EEK proposatutako zuzenketa tekniko baten ondoren, aho batez onartu dute.

Galdera eta erreguen atalean sortu da eztabaida handiena, ekitaldi publikoen gonbidapenen inguruan. EH Bilduk salatu du udal gobernuak ekitaldi horien "erabilera itsusia" egiten duela. Haatik, Jesus Zaballos alkateak erantzun dio zinegotzi guztiak joan daitezkeela edozein ekitaldira, gonbidapenik jaso gabe ere. "Zinegotzien lana ere bada, besteak beste, udalak babesten dituen ekitaldietan parte hartzea".

## Txakurrak paseatzeko tokiak eta ordutegiak zehaztu dituzte

Udalak lau kartel mota jarriko ditu, ordutegiaren arabera sailkatuak. Hainbat tokitan animaliek ezingo dute paseatu

### Txintxarri

Animalien araudia oinarri hartuta, kartelak jarriko dituzte txakurrak paseatu daitezkeen berdeguneetan, ordutegiak zehazteko. Sei kartel handi jarriko dituzte berdeguneetan. Lau kolore dituzte. Gorrian txakurrek ezin dute ibili; berdean libre ibili daitezke egun osoan; urdinean, 18:00etatik 11:00etara; arrosan, udan 23:00etatik 10:00etara, eta neguan 21:00etatik 10:00etara. Kartel txikietan gune bakoitzeko ordutegia zehaztuko dituzte.



Alkatea, aurkezpenean. TXINTXARRI



TXINTXARRI

## Eraso matxista larunbat gauean

Survival Zombies rol jokua eta gaueko iluntasuna baliatu zituzten hiru erasotzailek adingabe bat erasotzeko. Erasotzaile salatzeko, elkarretaratze jendetsua egin zuten joan den astean, Mugimendu Feministak deituta. Era berean, udalak atxikipena eman, eta gertatutakoa gaitzetsi du.

### Beldur Barik sarietara aurkezteko epea, azaroaren 9ra arte

Laugarren aldiz antolatuko dute Beldur Barik lehiaketa. Emakumeek jasaten duten bereizkeria egoerari aurre egiteko arte adierazpen oro aurkeztu dezakete neska-mutuek. 12 urtetik 26ra bitarteko gazteek parte hartu dezakete. Izena emateko azken eguna azaroaren 9a da. [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) webgunean

dagoen formularioa bete beharko dute horretarako.

Bi kategoria izango dira. 12-17 urte bitartekoentzako, eta 18-26 artekoentzako. Lehenengo saria irabazten duenari 200 euro emango diote; bigarren saria 100 euro izango dira.

Proiektuek Beldur Barik jarrera islatu behar dute. Alegia, emakumeen aurkako indarkeria gairatutako harreman libre, parekide eta ez sexistak eraikitze konpromisoarekin bat egin behar du.

# Elkartasunari irribarre batez keinu eginez

Aspanogiren 20. urteurren jaialdia egingo dute urriaren 21ean, igandean, Donostian. Lasarteoriatar ugari izango dira Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ekitaldian. Urriaren 6an pailazoek 'Musua' diskoa aurkeztu eta 'Borobilean'-en azken saioa eskaini zuten herrian

## Txintxarri

Aspanogik, Gipuzkoako haur minbizidunen senideen elkarteak, 20 urte beteko ditu aurten. Urtemuga hori ospatzeko jaialdi bikoitza antolatu du igande honetan, urriak 2lean, Donostiako Kursaallean.

Eguerdian Pirritx, Porrotx eta Marimotots Aspanogirekin kantari saioa izango da. Lasarte-Oriako pailazo bihurriekin batera hainbat talde izango dira kantuan eta dantzan, horien artean, Aspanogiko kide diren edo izandako Lasarte Oriako herritarrak, Ostadarreko Ipar Martxa taldea eta Dinbi Banda batukada.

Ostadar Ipar Martxako taldeak jakitera eman duenez, zortzi kide izango dira *Eskuetan* abestiaren koreografia egingo dutenak.

Arratsaldean, berriz, 19:00etatik aurrera, Erretereriako Musika Bandak, Easo Abesbatzak eta Anaiak Dantza Estudioak elkarrekin emanaldia osatuko dute. Sarrerak [www.kursaal.eus](http://www.kursaal.eus)-en eta Kursaalako lehiatilan erosi daitezke, hamar eurotan.

Atsedean gutxi izan dute pailazoek egunotan. Izan ere, lanpetuta ibili ziren urriaren 6an: *Musua* disko-liburu berria



Jaialdiko aurkezpeneko irudia. Ostadar Ipar martxako kideak egon ziren. KATXIPORRETA

aurkeztu zuten goizean, herrian bertan; arratsaldean, *Borobilean* emanaldiko azken saioa eskaini zuten Manuel Lekuonan.

Muxua eta sua. Bi hitz horien arteko hitz-jokoak ematen dio izena Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoaren azken lanari: *Musua*. Natura eta gure herriko tradizioak batu dituzte lan hori sortzeko.

Disko-liburua ez dute bakarrik sortu pailazoek. Leire Bilbaorenak dira hitzak; Xabier Zaballarena, musika; ilustrazioak Maite Mutuberriak

marrastu ditu eta diskoaren nahasketak Kaki Arkarazok egin ditu. Guztiak zeuden aurkezpenean.

*Musua* aurkeztu aurretik, herriko kaleak esnatu eta alaitu zituzten pailazoek. Irurtzundik etorritako Orritz-Iskidi joaldunak eta Xumela koruko kideak izan zituzten lagun.

Disko berria aurkeztu eta gero, herriz herri eraman duten emanaldiari agur esan zioten arratsaldean: *Borobilean*. Jalguneko kideek parte hartu zuten saio horretan.



NEURE KABUZ

MAILU ARRUTI

## Teknologia berriak

Gauza batzuk komentatu nahi nituzke publikoan. Batez ere, azken aldiari lagun artean, gure adinekoen artean, komentatzen ditugunak.

Orain dela urte batzuk 50 urteko jendea esperientziaduna zen. Bere lanpostuetan prestigioa zuena e.a. Gaur egun 50 urterekin analfabeto funtzionala bihurtzen zara, eta hori oso gogorra da! Edozein mukizu etorri eta... "oso erraza da". Eta zu lerdo aurpegiarekin geratzen zara.

Idazteko makinakoak garenok zer aurrerapen ikusi ditugu azken 15 urtean? Gure maximak erortzen ikusi ditugu.

280 pultsazio minutuko neuzkan Olivetti zahar hartan eta akatsik gabe. Ta, ta, ta, ta... klin ta, ta, ta... klin. Ai, hori soinu! Ezta Harley onenak ere!

Non gelditu dira gure *tipex*-ak? Eta hori baino lehen atzera bota, gainean idatzi, bi koloretako tintadun karrete haiek.... Abiadura zertarako? Mitoa, eroria.

Makina elektrikoa etorri zenean (gutxi irauan bazuen ere) ezin genuen sinetsi. Tekla ukitu orduko idazten zuen. Azkar demonio! Eta zuzentzailea zeukan. Hura mauka!

Eta gero ordenagailua. Jaun eta jabe! Gabe ezin bizi, eta berarekin... gehienetan haserre. Komeria! Kostata ulertu genituen [www](http://www), Internet, korreo elektronikoa... nabigadorea, hotmail, google, eta nola ez, punto com. Amen.

Zer diozue sakelako telefonoen sukarrari buruz?. "Bai, bai telefonoz hitz egin daiteke kotxea martxan doala ere!" Izan ere, batzuk exajeratzen hasten direnean... Gogoratzen nola zenbaitek jostailuzkoak erabiltzen zituzten gerrikoan jarrita ageri agerian. Kar-kar!

Eta ipurdirik gabeko telebistak? "Bai, bai paretan zintzilikatutako koadro batzuk bezala izango dira". Bai zea!!

"Sukaldean garrrik gabeko suetan kozinatuko dugu". Ja!

*Mi marciانو favorito* ikusten genuen bi kanal besterik ez zituen Vanguard hartan, eta horrelako xeblekeriak ateratzen ziren etorkizuneko bizitza honetan.

## Michelin kirol guneko aparkalekuak hobetzeko lanak

Lasarte-Oriako Udalak Michelin kirol guneko aparkalekuak hobetzeko, egin behar diren lanak

esleitu ditu. Horiek Cubiertas Pagola S.L. enpresak egingo ditu, 21.302 eurogatik.

Lanak teniseko kantxan egingo dira. Hobekuntza horiek eginda, azpian dauden aparkalekuetara ura ez sartzea espero du udalak.

**TXINTXARRI PUBLIZITATEA:**  
Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?  
[publizitatea@ttakun.eus](mailto:publizitatea@ttakun.eus)  
**943 371 448 (106)**  
**646 82 44 66**  
Geltoki kalea 4,  
Lasarte-Oria

**MAITE**  
ESTETIKA ARETOA  
**Korrikalari!**  
Hau da fotodepilazioa egiteko unerik egokiena  
Prezio berriak fotodepilazioan, zatoz galdetzera!  
Uistin Kalea z/g • Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

**Thailandia**  
IRTEERA 2019ko MAIATZEAN  
Noaak gidatutako talde bidaiak.  
Lasarte-Oriatik irtenda.  
T.: 943 373 613 • [info@noaoa.eus](mailto:info@noaoa.eus) • Hipodromo Etorbidea 10, Lasarte-Oria



Danborrada izan da asteburuko ekintzarik arrakastatsuenetako bat. Dozenaka herritarrek parte hartu dute. TXINTXARRI

# Sasoian daude Sasoetako jaiak

Lasarte-Oriako gazte, heldu eta adinekoek primeran pasa dute Sasoetako festetan. Auzoko jaiak berreskuratu ditu Sasoeta Sasoian elkarteak, iragana ahaztu gabe: aurreneko jai batzordeko kide izandako Antonio Arranzek eman du pregoia

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Duela bi urte berreskuratu zituen auzoko festak Sasoeta Sasoian bizilagun elkarteak. Nabaritzen da esperientzia hartzen ari direla: gero eta jai hobeak antolatzen dituzte. Andatza eta Jaizkibel plazek hartu dituzte egitarauko ekintza gehienak, baina Sasoetako kale eta bazter guztietara iritsi da festa giroa.

Egitaraua eskuetan hartuta, berehala antzematen da zein den antolatzaileen helburu nagusia: gazte, heldu zein adineko herritarrek parte hartzea, eta, batez ere, disfrutatzea. Lortu dute, beste behin.

"Sasoeta herriko beste auzoen mailan jartzea lortu dugu, lan asko eginda; primerako festak ari zarete antolatzen". Antonio Arranzen hitzak dira. 2016an berreskuratu zituen auzoko jaiak Sasoeta Sasoian elkarteak, baina duela zenbait urte ere egiten

ziren. Aurreneko jai batzordeko kideetako bat izan zen Arranz. Omenaldia jaso zuen ostiralean; festetako pregoia eman zuen.

## Atsedetik gabeko hiru egun

Txupinarekin batera lehortu zen festa Andatza plazan. Metro batzuetara, musika eta sardina usaina Jaizkibelen: Ttiriki-Ttarrakako kideek girotu zuten ostiral arratsaldea, herritarrek sabela bete bitartean. Gurasoek eta aiton-amonek lasai dastatu zuten arraina, etxeko txikienez gehiegi kezkatu beharrik gabe: gustura ibili ziren txiki-diskoan, dantza eta dantza.

## SASOETA SASOIAN BIZILAGUN ELKARTEA 2016AN HASI ZEN AUZOKO FESTAK ANTOLATZEN

Dantza arratsaldean, eta gauean ere bai: 1990eko hamarkadako garaia gogoratu zituzten nostalgikoek, Jaizkibelen egindako disko festan. Zezensuzkoaren aurrean korrika ere egin zuten.

Asteburu ekitaldi ikusgarriena larunbat arratsaldean izan zen: danborrada. Jaiekin batera berreskuratu zuten ohitura hori. Dozenaka herritarrek parte hartu zuten, Andatza plaza goraino betez. Kirolak ere izan zuen tokia egitarauan: zumba saioa egin zuten Saito gimnasiokoek, eta parkour tailerra eskaini Iñaki Lasaga gazteak. Gauean, zezensuzkoa eta kontzertua, *Café Irlandes* orkestraren eskutik.

Igandean indarrak zeuzkaten oraindik auzotarrek, eta patata tortilla txapelketa antolatu zuten Jaizkibel plazan. Eguraldi txarrak ez zuen zapuztu azken festa eguna. Barrikoteko sagardoa edanez bukatu zituzten jaiak.



Antonio Arranzek (ezkerrean) eman du aurtengo festen pregoia. TXINTXARRI



Akrobazia ikusgarriak egin zituzten gazteek parkour ikastaroan. TXINTXARRI



Etxeko gazteenek primeran pasa zuten ostiraleko txiki-diskoan. TXINTXARRI



Zezensuzkoa bueltaka ibili zen Andatza plazan, herritarren gozamenerako. TXINTXARRI

# Flamenkoa dantzatzeko gogoarekin geratu dira

Andaluzia eta Euskal Herria berriro senidetu dira asteburuan: Aste Kulturala ospatu du Semblante Andaluz elkarteak Okendo plazan. Euriak festa giroa busti du azken egunean, eta bertan behera utzi dute Los primos a compas de flamenkito taldearen emanaldia

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Semblante Andaluzek pasa den astean erakutsi zituen kultura sustatzeko helburuz martxan dituen ekimen guztiak. Duende, Gitanillas del Alba eta Zambra taldeek dantzatu zuten, ahotsak eta instrumentuen doinuak uztartu zituen Semblante Rociero koruak eta paella goxoa prestatu zuten elkarte sukaldariak, besteak beste.

Okendo plaza festa giroan egon da murgilduta asteburuan, baina euriak zapuztu egin zuen azken eguna: Los primos a compas de flamenkito taldea zen etortzekoa, baina eguraldi kaskarra ikusita, emanaldia bertan behera uztea

erabaki zuten musikariek eta antolatzaileek. Aste Kulturalako ekintza nagusietako bat zen.

## Ohorezko ardoarekin hasiera

Ardoarekin topa eginez ekin zioten aurtengo Aste Kulturalari Semblante Andaluz elkarte kideek. Udal korporazioko hainbat kide ere batu ziren irekiera festara.

Lehenengo ekintzak Atsobakar auzoan daukaten egoitzan egin zituzten: genero indarkeriari buruzko solasaldia eskaini zuen Ertzaintzak, asteartean; hurrengo egunean musean eta tutean aritu ziren herritarrak. Ostegunean elkarte utzi eta Okendo plazara

joan ziren: Gitanillas del Alba eta Semblante Rocierok eskaini zituzten emanaldiak.

Ostiral, larunbat eta igandeko egitarauak antzekoak izan ziren: haurrentzako puzgarriak eta aurpegi margolariak goizean; bote eta toka txapelketak gero; bazkalorduan, indarrak hartzeko, marmitakoa eta paella; eta, arratsaldean, musika eta dantza emanaldiak. Azpimarratzekoak izan ziren larunbat arratsaldekoak: Zambra eta Azabachek ikuskizun bikainak eskaini zituzten. Egun guztietan, bukatzeko, dantzaldiak.

Ostiral arratsaldean gitarra kontzertua eskaini zuten Julen Basterrak eta Imanol Vitoresek.



Gitanillas del Alba taldea asteburu osoan aritu zen dantzan. TXINTXARRI



Imanol Vitores eta Julen Basterrak kontzertu bikaina eskaini zuten. TXINTXARRI

Zer esango zenioke etorkizuneko zure ni-ari?

# FutureNi.eus

Nola irudikatzen duzu zeure burua 30 edo 40 urte barru? Zer espero duzu? Nolakoa izango da zure bizi kalitatea? Adinberri da gaurko zein biharko erantzuna, adinekoen **arreta integralerako eredu berritzaile bat** hedatzeko.

**Gehiago biziko gara. Bizi gaitezen hobeto.**

**ADINBERRI**  
OSASUNTSU ZAHARTZEKO  
ESTRATEGIA

Gipuzkonko  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa



**ETORKIZUNA  
ERAIKIZ**

# Urteurren urte bereziari agur

Erketz EDT-k 50. urteurrenko azken ekintzak egingo ditu asteburu honetan: emanaldia eta bazkaria. Urte horietan guztietan dantzari izandako 200 pertsona bilduko dituzte. Etorkizunean ere, euskal dantzak mantentzeko helburuarekin lanean jarraituko du taldeak

## Nerea Eizaguirre

Erketz Euskal Dantza Taldeak 50 urte bete ditu aurten. Hainbat ekintza burutu ditu urrezko eztei hauek ospatzeko. Taldeko kide Ainara Adurizek (Lasarte-Oria, 1989), Asier Balerdik (Lasarte-Oria, 1996) eta Alaitz Esnaolak (Lasarte-Oria, 1998) urteari errepasoa emateaz gainera, beste hainbat gairi buruz hitz egin dute.

Hirurak Erketz dantza taldeko harrobian hazitako kideak dira. Adurizek 5 urterekin eman zituen lehen pausoak euskal dantza taldean; Balerdik eta Esnaolak 7 urterekin.

Gurasoak edo familia giroa izan ziren Erketzen hastearen bultzatzaileak. Aduriz: "Gurasoek galdetu zidaten ea hasi nahi nuen, eta beste eskolaz kanpoko jarduera bat bezala hartu nuen". Balerdiren eta Esnaolaren kasuan dantza taldean arrebak edo ahizpa zaharrago bat izateak eragin zuen erabakian. "Ahizpak egiten zuen dantza Erketz Txikin, eta ni harekin joaten nintzen Dantzari Txikietara... Hori ikusita, ni ere hasi nintzen," kontatu du Esnaolak.

Ez dituzte Erketz dantza taldearen hasierako urteak bizi izan; ez diete dantzari faltaren gorabeherei aurre egin behar izan, baina taldea bereizgarri egiten dituen ezaugarriak oso argi dituzte.

Erketz dantza taldeak hasieratik beste herrietako dantza taldeekin harremanak egin, eta tokian tokiko dantzak ikasteko ahalegina egin du. "Gaur egun gehiena dokumentatua dago, eta bideoak daude; ez da beharrezkoa izaten lekuetara joatea. Hasierako bidaia horiei esker dakizkigun dantzak birtziklatzen saiatzen gara". Baina noizbehinka sortzen

da aukerarik, Adurizek eta Balerdik diotenez. "Gazteek berreskuratu genuen garai batean Erketzek egin zuena. Pello Ormazabal zegoen prestatzaile lanetan; hark Erketzeko lehen urteak bizi izan zituen. Eta Gasteiz eta Galdakaora joan ginen. Galdakaon Auritzeko ingurutxoak ikasi genuen, eta Gasteizen bertako zortzikoa. Hara joan ginen egun pasa, ikasi, mantendu, grabatu... Argazkiak erakutsi zizkiguten, jantziak nolakoak ziren jakiteko..."

Horrelako bidaiei esker, Erketzek altxor bat du: jantzitegia. Ehunka jantzi ditu taldeak; guztia jantzien arduradunak kudeatzen du. Pertsona honen lana urteen poderioz asko aldatu dela jakitera eman du Adurizek. "Jantzien arduradunaren lana ez da duela 40 urte zutena. Jantziak bilatu, egin, igandero geratu. Orain mantentze eta konponketa lanak dira egiten direnak, dantza berri gutxiago egiten baitira. Aurten *Lapurdi* dantzatuko dutenek orain dela 40 urte egindako jantziekin egingo dute dantza. Dantza berririk badago, jostunekin hitz egiten dugu edo erosi egiten dira."

Musikari taldea izatea ere balio erantsi bat dela azpimarratu dute. "Inoiz ez dugu dantzatu kaseteko musikarekin. Eta hori talde guztiek ezin dute esan. Inorri deitu gabe, inor kontratatu gabe, taldeak musikarik izatea bada berezitasun bat, eta eskertzekoa gainera. Askok ikasi

**DUELA LAU URTE  
BERRESKURATU ZUTEN  
GAZTEEK TOKIAN  
TOKIKO DANTZAK  
EZAGUTZEA**

dute taldean txistua edo instrumenturen bat jotzen. Hori ere aitortu behar da".

## Urteurrena

Erketz dantza taldea burubelarri egon da lanean urteurren berezia prestatzen, eta balorazio oso ona egin dute.

"Lehenago bilerak egiten hasi ginen 2015eko abenduan. Orduan oso proiektu urruna eta lodia ikusten genuena, pixkanaka aurrera atera da, eta orokorrean oso zapore onarekin," goraiatu du Adurizek.

Flashmoba, jantzi desfilea, erromeria, liburu eta diska aurkezpena, San Pedroko emanaldia, 50. urteurrenkoa eta bazkaria. Hilabetero ekintzaren bat antolatu dute. "Urtean zehar ekitaldi asko egitea zen ideia. Ez izatea ekainean emanaldi bat eta urrian beste bat. Eta proiektu bakoitza oso ezberdina izan da".

"Flashmob zerbait berria zela iruditu zitzaigun. Herriari begira, urteurrenaren berri eman eta hasiera emateko aproposa iruditu zitzaigun," jakitera eman du Balerdik. "Jende asko mugitu zen, gehienak dantzari ohiak. Ez zen ohiko emanaldi bat, eta oso ondo atera zen," gaineratu du Adurizek.

Jantzi desfilean Erketzek bere ondareetako bat erakutsi zuen: jantziak. Dantzariak, elkartek, senitartekoak, lagunak seme-alabak... parte hartu zutela kontatu dute. "Dantzarekin zerikusirik ez duen jendea batu zen desfilean".

Erromeriarekin urteurrena herriari ireki nahi zion dantza taldeak. "Nahiz eta taldekide edo ohiak ez izan, herritarrei ere aukera eman nahi genien urteurrenean parte hartzeko".



Erketzeko kideak 50. urteurrenko emanaldia egingo den Okendo plazan. TXINTXARRI

Egun horretan, *1968-2018. Etenik ez duen soka* liburu eta musikariaren diska ere aurkeztu ziren. "Hainbeste argazki eta anekdota izanik, argi zegoen libururen bat egin behar zela," dio Balerdik.

Lan handia zela eta, bi urte lehenago libururako edukia lantzen hasi ziren. Liburuari egitura emateko Xabier Martin *Berria*-ko kazetariarekin gogoratu ziren. "Erketzeko kide ohiak da. Hasiera batean baiezkoa eman arren, lan kontuengatik ezin izan zuten egin, eta hark Maider Galardi proposatu zuen. Orduan *Berria*-n zegoen praktikak egiten. Herrikoa, gaztea eta gogoz zegoen".

"Kriston lana egin du, bilera pila. Kanpotik etorritako norbait da, taldearen funtzionamendua zein den jakin gabe, eta hutsetik informazio pila bat lortu du. Gogorra izango zen guztiari forma ematea. Gaur egun taldean gaudenok baino askoz gehiago daki taldeari buruz".

San Pedro jaietako emanaldian omenaldi txikia egin zieten Erketzeko hazia jarri zuten bost emakumeei. "Horiek gabe ez litzateke posible izango".

Honez gain, herriko kultur elkarten elkarlanaren erakusle izan zen emanaldia, Alboka, Zero Sette eta Suberri taldeekin batera eman baitzuten. "Elkar ezagutzen dugu, urteetan elkarlana egin dugun taldeak gara eta. Haiekin ere ospatu nahi genuen urteurrena".

Ekintza horietan guztietan jendeak izandako erantzunarekin oso pozik dago taldea, eta guztien parte hartzea eskertu du.

Baina ekitaldi berezi horiez gain, badaude urtero kale egin ezin dutenak. Dantzari Eguna edo Dantzari Txiki dira horietako batzuk. Aurten Dantzari Txikiren 30. urteurrena izan da, esate baterako. "Itzela izatea nahi genuen, eta talde gehiago ekartzeko ahalegin egin zen, baina ez zen posible izan".

Dantzari Egunean, ordea, Gasteizko talde bat etorri zen. "Inguruko taldeak ekartzen saiatzen gara. Gasteiz pixka bat haratago geratzen da. Zerbait berezia ekarri nahi genuen. Herritarrek dantza talde berriak eta ezberdinak ikusteko".

Aurten bidaiarik egiteko aukerarik ez dute izan. "Aukera dagoenean, bidaia edo txangoa

## "Azken ginga eta errematea da urte guztia lan eta lan pasa ostean"

50. urteurrenari amaiera emateko Erketz EDTK bi ekitaldi antolatu ditu asteburu honetan. Larunbatean dantza taldeko dantzariak musikariak eta kide ohiek desfilea eta emanaldia egingo dute Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero, desfilea bertan behera geratu, eta emanaldia Manuel Lekuonan izango litzateke. Igandean, berriz, bazkari gozoa dastatuko dute Michelingo kirolgunean.

Erketz EDTK kideak aurreratu dutenez, larunbatean 200 bat pertsona bilduko dira, "Dantzari, dantzari ohi, txikiak, musikariak eta antolaketa lanetan den jendea kontuan izanik".

Adurizek azpimarratu duenez, "berezitasuna" badu ekintzak. "Bada jendea duela 50 urte egon zela taldean, eta animatu dela berri dantzatzera. Egunero kalean ikusten duzun jendea ere Erketzen egondakoa dela konturatzen zara. Beste perspektiba bat ematen dizu.

Jende asko pasa da Erketzetik, animatu direnak eta ezin izan dutenak, edo animatu ez direnak. Polita izango da".

"Niri beti esan didate Erketzen herri erdia egon dela dantzan. Urte honetan zehar, jende asko animatuko zela esaten zidaten; nik ez nuen uste. Orain ikusi dut 200 eta piko pertsona bildu garela. Horiek desfilean ikustea ikusgarria izango da," adierazi du Balerdik.

Belaunaldi askotako dantzariak batuko dira, eta hainbat dantza eskainiko dituzte. "Belaunaldi bakoitzak bere garaian ikasitako dantzak egitea zen intentzioa. Egon da jendea hutsetik hasi dena, zaila delako taldeak koadratzea," azaldu du Adurizek.

*Behe Nafarroako Inauteria, Lapurdiko Inauteria, Leitzako ingurutxoak, Iribasko ingurutxoak, Jaurrieta, Eltziego, Gasteizko zortzikoa, Gipuzkoano...* eskainiko dituzte. "13 dantza dira guztira.

Belaunaldi batzuk bitan daude banatuak, jende kopuruagatik, eta dantza ezberdinak egingo dituzte", esan du Adurizek.

Eta egitarau horren barruan, ezin ahaztu Erketzen harrobia. Erketz Txikiko haurrek ere dantzatuko dute: *Esku dantza, Txulalai eta Mahai dantza*.

Honez gain, musikari taldeak ere 50 urte horietan egondako jendeari deitu diela jakitera eman dute. Horri esker, desfilean trikitilariak, txistulari banda eta txaranga ikusi eta entzuteko aukera izango da. Desfile koloretsu eta jendetsuak erdialdeko kaleak girotuko ditu, beraz, larunbatean.

Igandean, berriz, bazkaria antolatu dute. Lehenik, meza izango da, eta ateratzerakoan arkuak jarriko ditu taldeak. "Ohiturei eutsiz, joandakoak gogoratuko ditugu".

Bazkal ostean, musikariak erromeria edo txaranga joko dute, guztiek dantzatu ahal izateko. "Guk dakigula behintzat, ez da ezustekorik egongo. Azkenean, urteurreneko azken ginga eta errematea da urte guztia lan eta lan pasa ostean".



Urteurrena, haur txupina eta *Dantza* filman parte hartzea, irudietan. TXINTXARRI/ERKETZ

egiten saiatzen gara. Gonbidapenak iristen dira, aukerak badaude jaialdietara joateko, baina aurten urteurrenarekin nahiko genuen", esan du Balerdik. "Iaz bidaia handia egiteko aukerarik ez genuen, eta Suancesko taldearekin harremanetan jarri ginen, bidaiatxoak egiteko" jakinarazi du Adurizek. "Baina ez da lehen bezala. Orain dena ordaindu behar da. Poloniara joan zirenean, adibidez, mugarainoko bidaia ordaindu zuten, eta gainerakoa hanga taldekoek ordaindu zuten. Jendea ere bildu behar da; ikasleak daude eta zaila izaten da batzuetan taldea osatzea bidaia egiteko".

Erketzek egindako bidaia eta ekintzak taldea bizitzeko beste era bat dira, euren hitzetan. "Erketz ez baita akademia bat, beste mota bateko taldea da".

### Esperientzia errepikaezinak

Honez gain, aurten San Pedro jaietako omendua ere izan da Erketz. "Hori ere esperientzia polita izan da. Balkoian egotea herritarren guztien aurrean. Txikiak ere txoratuta zeuden. Ziurrenik ez dugu izango beste aukera bat sanpedroetako txupinazoa botatzeko. Oso

eskertuak gaude. Taldeak merezitako zerbaite da, 50 urte egin ditu herrian lanean. Hor gaudela aitortzeko ere balio izan du. Askok mugitzen ez garelako dirudi, baina hor gaude urtero-urtero".

Hori gutxi ez balitz bezala, taldeko kide batzuk zinema pantailan haien burua ikusteko aukera izan dute, *Dantza* filmean. Leitzan izan ziren 2017ko maiatzean, dantza egin eta figurante lanak egiteko.

"Oso esperientzia polita eta aberasgarria izan zen. Guztientzat esperientzia berria izan zen, baita Telmo Esnal zuzendariarentzat ere. Berak zioen ezberdina zela figurante batzuekin edo dantzariekin lan egitea. Nabaritzen zen guztiek bagenekiela zer egin momentuan, berak lehen posizioa esan eta denak ezer esan gabe, posizioan jartzen ginen".

Zinemaldia hasi baino lehen, emanaldi pribatua egin zen.

## EKINTZA GUZTIETAN JENDEAK IZANDAKO ERANTZUNAREKIN OSO POZIK DAGO DANTZA TALDEA

# Eskola eta familia, eskutik hartuta

'GurasoLeku' egitasmoak haurra ahalik eta euskal hiztun osoena egitea du helburu. Horretarako, familiaren, eskolaren eta herriaren borondatea eta baliabideak batzen ditu. 2 eta 5 urte arteko haurren gurasoek euskara erabiltzeko ohiturak indartu ditzakete

Hezkuntza makulu sendoa da hizkuntza transmisiorako, gaztetxoek euskara ikas dezaten. Baina aditu guztiak bat datoz: inguruak ere garrantzi handia du. Horregatik, udalak, bi ikastetxeek, Ttakunek eta Muntteri-AEK euskaltegiak martxan dute *GurasoLeku* egitasmoa. Gurasoei espazioak eta tresnak eskaintzen dizkie, ikastetxeekin elkarlanean, seme-alabekin euskaraz hitz egin dezaten. Modu horretan, programak familia, eskola eta herria batzen

ditu, haurra ahalik eta hiztun osoena egiteko.

Hiru atal nagusi ditu programak. Batetik, *GurasoLagun* izeneko dago. Euskaraz aritzeko gaitasuna duen pertsona bat ohitura ez duen batekin elkartzean datza, azken horrek hitz egiteko mekanismoak hartu ditzan. Finean, *Mintzalagun* edo *Solaskide*-ren parekidea da, baina ikasmaila bereko haurren gurasoekin.

Bestetik, *GurasoTegi*-n gurasoentzako euskara eskolak

eskaintzen dituzte, komunikatzeko oinarriko gaitasunak lantzeko; batez ere, indarra jartzen dute gurasoek haurrekin duten egoera komunikatiboetan.

Azkenik, *GurasoLandia*-n beste bi programetako gurasoak elkartzen dira, aisiako jarduerak egiteko haurrekin. Helburu bikoitza du: tarte atsegin bat igarotzea familia artean, eta euskaraz aritzen gozatzea.



Lasarte-Oriako Landaberi eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeak eta guraso elkarteak dira ekimen honetako sustatzaileetako batzuk. Horregatik, ikastetxeek gurasoak animatzen dituzte ekimen honetan parte hartzera.



Hogei bat irakaslek parte hartzen dute *GurasoLeku* programan, Landaberi ikastolan. "Esperientzia aberasgarria da. Herrian euskara bultzatzeko modu oso ona". Izan ere, gurasoak jartzen ditu hizkuntza transmisioaren erdian. "Haien jarrera oso garrantzitsua da. Eskola, gurasoak eta herriaren arteko elkarlanean egindako proiektua da, baina bakoitzari bere garrantzia aitortzen zaio". Horregatik, gurasoei dei egiten diete parte hartu dezaten.

Halere, irakasleek argi utzi dute bidaia horretan gurasoak ez daudela bakarrik. "Elkarlana da giltzarria, eta eskola da euskararen bilgunea".



Zazpi irakasle daude Zumaburuko *GurasoLeku* egitasmoan buru belarri. "Gurasoengana heltzeko baliagarriak izan gaitezke irakasleok". Programaren dinamikak "aproposak" direla uste dute. "Desberdina da, ez da euskaltegi batean esertzea eta ikasten hastea. Gertutasuna lortzen da, jolasak egiten dira, eta askoz ere erakargarriagoa da". Nahiz eta hezkuntzak pisu handia izan haurren euskalduntzean, inguruak ere egiten du prozesua arrakastatsua. Hain zuzen, familian hasten da inguru hori. "Horregatik oso interesgarria da programa hau".





# Guraso leku



## Guraso Lagun

Maria Manso euskaldun berria da, eta ongi moldatzen da euskaraz hitz egiten. "Praktikak lagundu dit konfiantza hartzen". Hain zuzen, *GurasoLagun* egitasmoan irabazi du euskaraz aritzeko trebetasuna. "Oso gustura ibili naiz. Nire inguruan badut euskaraz aritzeko aukera, baina batzuetan, ohitura faltagatik edo, gaztelerara jotzen dut. Egunero hitz egiten ez bada, galdu egiten da".

Mintzapraktika saioen moduan, ikasgela edo ikasmaila bereko gurasoek haurrak ikastetxera eraman ostean geratu daitezke euskaraz hitz egitera. Haiek nahi duten gaien inguruan eztabaidatu dezakete. Beste gurasoekin harremanak egin eta euskaraz aritzeko ohitura hartu du horrela Mansok. Azkenean, senarra ere animatu da praktika horietara. Urte batzuk daramatza



Maria Manso

ekimenean parte hartzen. "Jarraitzeko asmoa dut aurten ere. Jarduera oso interesgarriak egiten ditugu".



Ana Martori

Ana Martorik "esperientzia polita" izan du *GurasoTegi*-n, asko ikasteko baliatu baitu programa. Kataluniakoa da bera,

## Guraso Tegi

eta katalanez hitz egiten die haurrei. Bi ditu, 5 eta 7 urtekoak. "Kanpoko izanik, asko aprobetxatu dut, haien eskola orduetan ematen baitira eskolak, Landaberrin bertan. Haiek eskolaz kanpo daudenean ez baitut denborarik euskaltegira joateko".

Eskolak oso praktikoak dira, eta "oso pozik" dago irakasleekin.

"Zaila da maila guztiak bateratzea, baina oso ondo moldatzen dira irakasleak".

Batez ere hitz egitera animatzen dituzte irakasleek. "Niri oso ondo etorri zait. Hitz egitea pixka bat kostatzen zait oraindik, baina ondo ulertzen dut". Hobekuntza handia nabari du. "Garrantzitsua da oso trinkoak ez direla, horrela ez naiz gogaitzen".

## Guraso Landia

"*GurasoLandia*-ri esker euskaraz hitz egin ahal izan dut lotsarik pasa gabe". Oso gustura aritu da Fatima Jorganes programan. "Oso aberasgarria da. Nire alabarekin euskaraz hitz egitea normalizatu dut, euskara gutxi dakiten beste gurasoekin batera ekintzak egitean".

Bi alaba ditu Jorganesek: 5 urtekoa bata, eta urtebetekoa


bestea. Haiekin ekintza mordoa egin dituzte urte osoan. Esaterako, ipuin kontaketa, gorputz pintura, salto gela...

Lehen aldia zuen eskola batetik kanpo euskaraz hitz egiten zuela. "Ez dakit asko hobetu dudana, baina balio izan dit euskaraz aritzeko". Pena ematen dio, lan kontuengatik ezin baitu parte hartu aurtengo programan.



Fatima Jorganes

Espero du aurrerago ahal izatea. "Haurrak galdetzen dit ea joango garen aurten ere. Haiek izugarri ondo pasatzen dute".



Haiek dira elkarrekin burutuko ditugun ekintzak:

	HH2	HH3	HH4	HH5
Abenduan:	Sehaska kantan	Istoriak asmatu	Kirola	Natura-jolasak
Urtarrilean:	Ipuinak, maitasuna	Musika egin	Antzerkia	Birziklapena
Otsailean:	Masajea	Mozorroak sortu	Dantza	Sukaldaritza
Martxoan:	Ipuinak, koloreak	Artelanak egin	Plastika	Natura-artelana
Apirilean:	Ipuinak, animaliak	Jostailuak asmatu	Gorputz adierazpena	Biodantza
Azken saioa:	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia	Ekintza berezia

# Urriko azken iganderako beroketa ariketak egiten

Astebete eskas falta da Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiairen 23. ediziorako. Ibilbidean iaz egindako aldaketak mantendu dituzte, eta Ipar Martxako kideek erakustaldia egingo dute lehen aldiz. Euskaraldiko hamaikakoak eramango du 1 zenbakidun dortsala

## Iñigo Gonzalez Sarobe

Berrikuntzekin dator Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoiairen 23. edizioa. Ipar Martxa modalitatea sartu dute aurtengo edizioan, eta 1 zenbakidun dortsala taldean eramango dute: Euskaraldiko hamaikakoak jantziko du. "Ekimenarekin bat egin nahi dugu, eta aitortza horren bidez gure hondar aletxo jarri", diote Ostadar SKTko kideek.

Ez da egongo aldaketarik ibilbidean. Patinatzaileak proban hobeto integratze aldera, moldaketa batzuk egin zituzten iaz. "Lasterketa hobetu dugu eta korrikalariak begi onez hartu zituzten iazko aldaketak; etorkizunean berdin jarraitu nahi dugu, moldaketa gehiago egin gabe".

## Izena emateko aukerak

Internetez zein fisikoki eman dezakete izena herritarrek. Atzotik kultur etxeko kafetegian daude Ostadar SKTko kideak,



Ostadar SKTko eta Euskaraldiko kideak, irribarretsu talde argazkian. TXINTXARRI

astelehenetik ostiralera, 17:00etatik 20:00etara.

Azken ordura arte apuntatu ezin direnak ez daitezela larritu: Michelingo pilotalekura joanda dortsala lortu dezakete. Orduetegiak, hauek: krosaren bezperan, hilak 27, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik

20:00etara. 28an, berriz, 09:00etatik 10:00etara. Garestiagoda da izenematea bi egun horietan: 20 euro. Lehenago eginda, 8 euro ordaindu beharko dituzte Ostadarreko bazkideek, eta 12 bazkide ez direnek.

Sarean izena eman nahi dutenek bi aukera dituzte: [www.ostadarskt.eus](http://www.ostadarskt.eus)

web orrialdean edo [sailkapenak.com](http://sailkapenak.com) atarian.

Dortsalak eta kamisetak bezperan jaso behar dituzte parte-hartzaileek, Michelingo frontoian, izena emateko jarri dituzten ordutegietan. "Internet bidez apuntatu direnek NANA, EHNa edo antzeko dokumenturen bat erakutsi beharko dute; kultur etxean egin dutenek, berriz, bertan jasoko duten agiria".

## Hamar kilometro

Iazko ibilbidea egonkortu nahi dute, eta ez da aldaketarik izango. Ez egituran, ezta distantzian ere: hamar kilometro osatu beharko dituzte korrikalariak, gorpildun aulkiko lasterkariak eta patinatzaileak. Ipar Martxako kideek, berriz, erakustaldia egingo dute, eta distantzia laburragoa osatu: 5,3 kilometro. Ikusten badute froga ongi irteten dela, 2019ko krosaren herritar guztiei emango liekete aukera modalitate horretan parte hartzeko. Aurten 50 bat kide ariko dira makilekin.

Lau diziplina, eta lau irteera ordu: 10:25ean hasiko dira patinatzaileak; 10:28an, gorpildun aulkikoak; bi minutu geroago korrikalariak; eta, azkenik, Ipar Martxako kideak 10:35ean. Geltoki kalean (Frutas Ruiz denda parean) jarriko dute irteera-lerroa, eta Okendo plazan helmugakoa.

## Gaztetxoak, Korrika Festan

Kirolari helduak ez dira izango kros eguneko protagonista

bakarrak. Gaztetxoaren Korrika Festak hemezortzi urte betetzen ditu aurten. 12:15 aldera hasiko da, helduek bukatu eta segituan.

Infantil eta kadete mailetakorrikalari gazteek irekiko dute Korrika Festa. Bi proba horiek bukatzean, gainontzeko urteetako neska-mutilek egingo dute lasterka, txanda desberdinetan. 2007. eta 2013. urte bitartean jaiotakoek parte hartuko dute.

Osatu beharreko metro kopurua korrikalarien adinarenean arabera izango da: 100 metro egingo dituzte gazteenek, eta 1.200 zaharrenek. Tartean, beste hiru distantzia: 150, 400 eta 800 metro. Geltoki kalean barrena ariko dira.

Kultur etxeko kafetegian eman beharko dute izena gaztetxoek, helduen egun eta ordutegi berean. Bost euroren truke kamiseta, domina, edateko jogurta eta gailetak jasoko dituzte.

Prentsaurrekoa bukatu aurretik, Lasarte-Oria Bai! Kros Herrikoiairen babesle eta boluntarioen "ezinbesteko ekarpena eta laguntza" nabarmendu dituzte Ostadar SKTko kideek.

## 18 URTE BETEKO DITU GAZTETXOEN KORRIKA FESTAK. 12:15ETIK AURRERA HASIKO DIRA HAIEN PROBAK

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

<b>FUTBOLA</b>
<b>OHOREZKO ERREGIONAL MAILA</b>
<b>Lagun Onak - Ostadar SKT</b> Larunbata. 17:00. Azpeitian.
<b>ERREGIONAL PREFERENTEA</b>
<b>Santo Tomas - Ostadar SKT</b> Igandea. 17:30. Berio, Donostian.
<b>ERREGIONALEN 1. MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Sporting Herrera</b> Igandea. 15:30. Michelinen.
<b>JUBENILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Aloñamendi</b> Larunbata. 15:30. Michelinen.
<b>JUBENILEN 1. MAILA</b>
<b>Urnieta KE - Ostadar SKT</b> Larunbata. 18:00. Urnietan.
<b>INFANTILEN OHOREZKO MAILA</b>
<b>Ostadar SKT - Beasain SD</b> Larunbata. 12:30. Michelin.
<b>INFANTILEN 1. MAILA</b>
<b>Amara Berri KE - Ostadar SKT A</b> Igandea. 15:30. Martutene, Donostian.

<b>Ostadar SKT B - Texas Lasartearra CF</b> Larunbata. 10:30. Michelinen.
<b>LEHENENGO MAILA</b>
<b>Reala - Levante</b> Igandea. 12:00. Zubietan.
<b>BIGARRENGO MAILA</b>
<b>Añorga - Pradejon</b> Larunbata. 18:15. Añorgan.
<b>Berriozar - Athletic B</b> Igandea. 17:00. Berriozarren.
<b>ARETO-FUTBOLA</b>
<b>ESTATUKO 3. MAILA</b>
<b>Elorrioko Buskantza - Antiguoko KE</b> Larunbata. 18:00. Elorrian.
<b>GIPUZKOAKO 1. MAILA</b>
<b>Aldaz Hartz Klinika - Gure Txokoa</b> Ostirala. 20:50. Maialen Chourraut kirolegian.
<b>GIPUZKOAKO 2. MAILA</b>
<b>ISU Leihoak - Donibane Stokke</b> Ostirala. 20:00. Michelinen.
<b>GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA</b>
<b>Idiazabal - Garoa Taberna</b> Igandea. 12:00. Idiazabalen.

<b>GIPUZKOAKO JUBENILEN MAILA</b>
<b>Bar Lasarte - Antiguoko</b> Igandea. 10:00. Mons kirolegian, Donostian.
<b>PILOTA</b>
<b>PROFESIONALAK, BIKOTEKA</b>
<b>Agirre-Imaz / Arteaga II-Untoria</b> Larunbata. 17:30. Labrit, Iruñean.
<b>GIPUZKOAKO TXAPELKETA</b>
<b>Gure Txeru - Intza KE</b> Ostirala. 19:30. Getarian. Laugarren partida.
<b>Intza KE - Tolosa</b> Ostirala. 20:00. Michelingo frontoian.
<b>SASKIBALOIA</b>
<b>SENIOR HIRUGARREN MAILA</b>
<b>Larramendi - Ostadar SKT</b> Larunbata. 20:00. Yoldi, Donostian.
<b>SENIOR LEHENENGO MAILA</b>
<b>Cafes Aitona Askatuak - Ostadar SKT</b> Larunbata. 10:55. Antzizar kirolegia, Beasainen.

<b>JUNIOR ERRENDIMENDUA</b>
<b>Zast Zarautz - Ostadar SKT</b> Igandea. 16:00. Zarautzen.
<b>JUNIOR PARTE HARTZEA</b>
<b>BKL Igartza - Ostadar SKT</b> Larunbata. 16:00. Beasainen.
<b>LASTERKETA</b>
<b>15 KM DONOSTIA</b>
<b>Herriko zenbait lasterkarik parte hartuko dute. Bi lasterketa daude: 15 kilometrokoa eta bostekoa.</b> Igandea. 09:45etik aurrera. Donostian.
<b>MENDI LASTERKETA</b>
<b>HIRU HANDIAK</b>
<b>Javi Olazagoitiak Hiru Handiak mendi lasterketa jokatu du. Gorbeia, Anboto eta Aizkorri igo beharko dituzte, 100 kilometroko ibilbidean.</b> Larunbata. 00:00. Murgian.

<b>ERRUGBIA</b>
<b>OHOREZKO MAILA</b>
<b>Hernani CRE - Valladolid RAC</b> Igandea. 12:30. Landare, Hernanin.
<b>OHOREZKO B MAILA</b>
<b>Kaleido Univ. Vigo - Babyauto Zarautz</b> Igandea. 12:00. Vigon.
<b>EUSKAL LIGA</b>
<b>Babyauto Zarautz - AZ Avia</b> Larunbata. 16:00. Astin.
<b>18 ETA 16 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Beltzak ZRT - La Unica</b> Larunbata. 10:30 eta 12:00. Astin.
<b>12 ETA 10 URTEZ AZPIKOAK</b>
<b>Federazioko jardunaldia jokatu du.</b> Igandea. 10:00. Michelinen.
<b>AUTOMOBILISMOA</b>
<b>URRAKIKO IGOERA</b>
<b>Urrakiko igoera jokatu du Iñaki Racamondek.</b> Igandea. 10:00. Azpeitian.

## Hiru Handiak lasterketarako prest da Javi Olazagoitia

Ehun kilometroko mendi proba osatuko du korrikalari lasarteoriatarrek asteburuan: "Ongi prestatu naiz"

### Txintxarri

Urteko helburua zapuztu zitzaion uztailean, Ehunmilak lasterketa ekaitzagatik bertan behera geratzean. Baina azkar batean jarri zuen hurrengo erronka: Hiru Handiak lasterketa egingo du Javi Olazagoitiak. Ostiraletik larunbaterako gauerdian aterako da Murgiatik, Gorbeia, Anboto eta Aizkorri igotzeko. Ehun kilometroko lasterketa da.

Uztailean lortutako sasoi puntuari etsi dio Olazagoitiak, eta "etxeko lanak eginda" aurkeztuko da gaur irteerara. "Asko eta ongi entrenatu dut denbora honetan. Orain bakarrik eguraldiak errespeta gaitzala behar dugu". Hain justu, oraindik gogoan du Ehunmilak lasterketan gertatutakoa. Helburua ere finkatu du: "Orain bi urte 15 ordu 35 minututan egin nuen. Ea denbora hori hobetzen dudana".

Bestalde, nabaria da errepideko lasterketa garrantzitsuak gerturatzeko ari direla. Izan ere, Lasarte-Oria Bai! Krosaren atarian, hainbat lasterketa egin dituzte azken boladan. Joan den igandean 40 herritarrek parte hartu zuten



Olazagoitia, entrenamendu batean.

Hiru Hondartzetako Krosean. Raul Gomezek hamar kilometroak 33 minutu baino gutxiagoan egin zituen, seigarren helmugaratuta. Igande honetan Donostiako 15 kilometroko lasterketan izango da, eta faboritoen artean dago.

Bizkaia aldean ere izan dira beste batzuk. Esaterako, Xabi Carcedok Zornotza-Bilbo lasterketa egin zuen urriaren 7an. 22 kilometro gorabeheratsuak 1:27 denboran egin zituen, eta hamahirugarren postuan helmugaratu zuen.



AIURRI

## Apustua Xoxokan, gutxiagatik

Lehia polita izan zuten Urtzi eta Beñat Telleria anaiek, baina azkenean ezin izan zuten desafioa irabazi. Minutu eta bost segundo lehenago amaitu zituzten lanak Julen Gabirondok eta Suarri Irazustabarrenak. Harria altxatzen, lasterketan eta segan jardun zuten joan den ostiraletan.



REAL SOCIEDAD

## Realak ezin Lezaman irabazi

Reala irabazten hasi arren, ezin izan du Lezamatik garaipen batekin bueltatu (2-1). Iraia Iparragirre lasarteoriatarrek partida osoa jokatu du. Denboraldi ona egiten ari da talde txuri-urdina; hirugarren da sailkapenean. Bestalde, Bigarren Mailan Irati Urruzola sailkapeneko lehen postuan da Athletic B taldearekin. Partida guztiak jokatu ditu herritarrek.

## Bezeroaren Hamabostaldia

# 1.300€ saritan

**Lasarte-Oriako dendetan erosi baduzu eta erosketa-bonoak badituzu, zatoz!**

## Zuzeneko zozketa

# GAUR

**urriaren 19an 20:30ean,  
Okendo plazan**



**LASARTE-ORIAN BIZI, LASARTE-ORIAN EROSI**



# Brontzezko domina eskuratu du Alegrek

Lasarte-Oriako judokak "esperientzia polita" bizi du Andorran jokatu duten Special Olympic Games lehiaketan. Gainera, nazioarteko hainbat txapelketatan parte hartzeko gonbita jaso du gazteak. Hurrengo asteetan Irun eta Donostian lehiatuko du

## Nerea Eizagirre

Special Olympic Games txapelketako brontzezko domina ekarri du Oscar Alegrek Lasarte-Oriara. Urriaren 7tik 9ra bitartean jokatu dituzte jokoak Andorran eta La Seu D'Urgellen, Katalunian. Gazte lasarteoriatarra Andorran lehiatu da Euskadiko selekzioarekin, eta bere entrenatzaile Gorka Aristegi eta gurasoen babesa izan du.

Bi jardunalditan banatu dute judoko txapelketa. Lehenengoan entrenamendua egin dute judoka guztiek. "Bertan epaile eta entrenatzaileek lehiakideen maila ikusi genuen", esan du Aristegik. Bigarren egunean, berriz, mailaren arabera lehiatu dute.

Lasarte-Oriako judokak pisu handiengan parte hartu du. Lau lehiakide zeuden maila horretan, eta hiru alditan igo da tatamira. "Andorrako bi judoka eta Suitzako judoka bat izan ditu aurrez aurre. Ongi aritu da



Oscar Alegre, Special Olympic Games txapelketan lehiatzen. GORKA ARISTEGI

Oskar, eta brontzezko domina eskuratu du".

Baina kirol arloaz gain, Aristegik azaldu du esperientzia ere oso aberatsa izan dela. "Antolakuntza oso ona izan da, eta azpimarratzekoa da kirolarien

arteko giroa. Borroka bat amaitzean besarkatu egiten dira, nahiz eta galdu. Ez gaude horretara ohituak".

LOKEko entrenatzaileak eskerrak eman dizkie Euskadiko Selekzioari eta Gipuzkoako Kirol Egokituko Elkarteari. "Haien laguntzarik gabe ezinezkoa litzateke Andorrara joatea".

Bestalde, beste torneoetan parte hartzeko gonbidapenak egin dizkiete. "Mundu berri bat ireki zaigu honi esker," azpimarratu du LOKEko judo entrenatzaileak. "Euskadin ez dago Special Olympics Game mugimendua, hemen kirol egokitua da. Baina Europan oso zabaldua dago. Herbeheretan txapelketa bat egiten da. Suitzara joateko gonbidapena egin digute, eta Joko Mundialak ere badaude. Aurten Abu Dhabin izango dira, eta dirua lortuz gero, zergatik ez joan?"

Honez gain, hurrengo astean Irunen egingo den topaketa batean ere izango da Alegre. Bestalde, azaroaren 17an Donostian antolatuko duten karate eta judoko txapelketan ere parte hartuko du.

## Mailari eutsiko dio Intzako Lehenengo Mailako bikoteak

Bigarren Mailakoek partida erabakigarria dute aste honetan Getarian, Gure Txeruko bikotearen aurka

### Txintxarri

Intzak hurrengo urtean Ezker Hormako Lehenengo Mailan bikotea izango du. Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak osatutako bikoteak mailari eustea lortu du, lehen fasea amaitzeko bi jardunaldi falta diren arren.


Maila handiko bikoteen aurka lehiatu du Intzak; lehenengo astean 5-22 galdu zuen Soralezaren aurka.

Aste honetan, Michelingo pilotalekuan Tolosaren aurka jokatuko dute zaleen aurrean, 19:30etik aurrera. Partida lehiakorra espero du Elola-Artetxe bikoteak.

### Partida erabakigarria

Bigarren Mailako taldeak, ordea, lana du aurretik. Sailkapeneko azken postuetan da, eta puntuak lortu behar ditu mailari eusteko. Aste honetan Gure Txeru du arerio, eta azken jardunaldian, berriz, Intxurre.

Lehenengo astean galdu egin zuen etxean Urkiak eta Solanok osatutako bikoteak. Orio izan



Solano, pilotakada betean. TXINTXARRI

zuen aurrez aurre. Bi taldeen arteko desoreka nabarmena izan zen hasieratik, eta 8-22 gailendu zen kanpoko bikotea. Zapora txarra kendu nahi dute gaur Getarian.

Bestalde, profesioaletan Axier Arteaga Eusko Label Lau'terdiko txapelketatik kanpo dago. Urriaren 6an Jakaren aurkako norgehiagokan 22-11 galdu zuen. Bikotekako partida jokatuko du asteburuan.



TXINTXARRI

## Buruntzaldeko ibilbideen 11. eguna egingo dute igandean

Buruntzaldeko ibilbideen eguna dela eta, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Usurbil eta Aginaga arteko bideak ezagutzeko aukera dago igande honetan, 8:00etatik 14:00etara.

Ibilbideen egunean parte hartzen duten pertsonen herriko kontrolean txartel bat jaso behar dute, eta helmugara iristean zigilua jarriko diete. Lasarte-Orian San Pedro eliza ondoan egongo da kontrola.

Bi ibilbideetako zigilua lortu edo Andoain-Lasarte-Oria/Andoain-Usurbil bideak egiten dituztenek oparia jasoko dute: motxila bat.

Autobus zerbitzua izango da 12:00etatik aurrera norbera abiatu den herrira itzultzeko; txartela zigilatua aurkeztu beharko da. Bestalde, Ostadar S K T k o m e n d i s a i l a k Buruntzaldeari itzulua oinez emateko asmoa du. 8:00etan aterako da taldea San Pedro eliza ondotik. Ipar Martxa taldeko kideak, berriz, leku berean bilduko dira 9:00etan, Aginagara arteko bidea egiteko.



Sagasti, Balda eta Olmos, Aristegi entrenatzailearekin. GORKA ARISTEGI

## Lehiaketei neurria hartzen

Espaniako Super Kopako jardunaldia jokatu dute Iruñean. Bertan, Asier Sagasti, Fermin Balda eta Josu Olmos seniorrek txapelketa denboraldiari hasiera eman diote. "Emaitza aldetik ez da ondo joan, baina gustura etorri gara. Maila handiko jardunaldia izan da, eta beste txapelketei begira zer landu behar dugun ikusi dugu". Asteburu honetan kadeteak hasiko dira lehiatzen. Santi Mecenasek, Ekhi de la Cruzek, Mari Guerrerok, Oier Bocosek eta Oier Guisadok Salamancako torneoak jokatuko dute.

## ZORION AGURRAK



**Kenai**  
Zorionak Kenai zure 12. urtebetetzean. Askoko maite zaitugu!!! Muakkkkkkkkk!!!



**Ekaitz**  
Zorionak txapeldun, ondo pasa zure egunak. Muxu pila etxekoan partez. Maite zaitugu.



**Aiora**  
Zorionak printzesa!! Disfrutatu zure eguna! Muxu potolo bat etxekoan partetik!



**Nerea**  
Zorionak printzesa. Ondo pasa zure 8. urtebetetzean, zure familiaren partetik.



**Haizea eta Iñaki**  
Zorionak bikote, zuen eguna asko disfrutatu, merezi dezutela! Etxekoan partetik muxu pilo bat!



**Irati**  
Zorionak eta muxu asko zuretzat, famili guztiaren partez.



**Silvia**  
Zorionak munduko amarik hoberenari. Mila muxu familia osoaren partetik. Askoko maite zaitugu!!



**Oihane**  
Zorionak guapa etxekoan partez!!! Muggle batzuk besterik ez gara, baina maite zaitugu. Muxuk...

## JAIOTAKOAK

**Aimar Egaña Jauregui.** Urriaren 11an.  
**Jaime Daniel Zelaya Salgado.** Urriaren 11an.  
**Lucia Gonzalez Coloma.** Urriaren 6an.  
**Nagore Lanuza Lopez.** Irailaren 25ean.

## TELEFONOAK

### UDALAREN TELEFONOAK:

ERREGISTROA: 943 371 629  
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184  
KIROLDEGIA: 943 376 182  
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181  
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179  
KIUB: 943 361 605  
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621  
MUNTTERI AEK: 943 372 863

### LARRIALDIKO TELEFONOAK:

OSASUN ZENTROA: 943 007 960  
DYA: 943 464 622  
GURUTZE GORRIA: 943 363 953  
UDALTZAINAK: 943 362 442  
ERTZAINAZA: 943 538 840  
SOS DEIAK: 112

## HILDAKOAK

**Tiburcio Echeverria Oliden.** Urriaren 10an.  
**Jose Maria Garcia Segura.** Urriaren 9an.  
**Antonio Sarasola Imaz.** Urriaren 9an.  
**Jesus Maria Sukuntza Sagastibelza.** Urriaren 8an.  
**Lucia Lidia Ruiz Montesinos.** Urriaren 8an.  
**Javier Calvete Segui.** Urriaren 7an.  
**Antonio Rios Agudo.** Urriaren 4an.

## GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 19 LASA

Larunbata, 20 GIL

Igandea, 21 GIL

Astelehena, 22 DE MIGUEL

Asteartea, 23 ACHA-ORBEA

Asteazkena, 24 URBISTONDO

Osteguna, 25 GANDARIAS-URIBE

### EGUNeko FARMAZIAK: 9:00-12:00

ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52  
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49  
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51  
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74  
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29  
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67  
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

### GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00

Castilla-Larburu: Urbietakalea 7, Hernani/ 943 55 29 41

**Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira.**  
Gehieneko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (www.cofgipuzkoa.com).

## SUDOKUA

5	8					7		
				9		8	3	2
	2		1	7	8	6		
9		8						1
2		7	9	5			6	8
6		5	8			3		9
8	6		5	3	2	9		
	9				1		5	
	5		7	4				8

## OHARRAK

### Biyak Baten txangoa Lodosara

Biyak Bat adinekoen egoitzako kideek hilaren 25ean, Lodosara txangoa egingo dute. Kontserba-industria bat, eliza eta Valdelares upeltegia bisitatuko dituzte goizean. Bazkaria Azagrako Venecia ostatuan egingo dute. Ostean, bingoa eta dantzaldia egongo dira.

Izena eman dezakete txangoa egin nahi duten herritarrek, Biyak Bat egoitzan. Bazkideek 35 euro ordaindu beharko dituzte; bazkide ez direnek, berriz, 40 euro.

### Xumela koruko entseguak

Xumela koruak hasi du ikasturte berria. Euskaraz eta ongi pasatuz kantatu nahi duen guztiak ateak zabalik ditu astelehenero 19:30etatik 20:30etara.

### Tabernei deialdia Euskal Jaietan

Azaroaren 10ean izango dira Euskal Jaiak. Herriko taberna guztiak gonbidatzen ditu Euskal Jaien Lantaldeak

festa eguneko egitarauan parte hartzera. Alde batetik, pintxo-potea eginez. Bestetik, gaua girotzeko ekitaldi bereziak antolatuz, betiere Euskal Jaien ezaugarriak kontuan hartuta.

### Alboka Abesbatzaren entseguak

Alboka abesbatzak 2018/2019 ikasturteari hasiera eman dio, berrikuntza batekin: entsegu lekua. Ikasturte honetatik aurrera, Villa Mirentxun bilduko dira, astelehen eta ostegunetan izango dira 20:00etatik 21:30etara umore onean abesteko. Alboka Abesbatzak 15-55 urte bitarteko lasarteoriatar guztiak gonbidatzen ditu entseguetara gerturatzen eta probatzera. Ez da beharrezkoa musika hizkuntza jakitea. Informazio gehiago [albokaabesbatza.com](http://albokaabesbatza.com) helbidean eskuratu daiteke.

**ESKELAK JARTZEKO: 943 37 14 48**  
edo TXINTXARRI erredakzioa

- ▶ Hileta egunean eskela Txintxarri.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Txintxarri paperean: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: 90€
- ▶ Eskela mota guztiak Txintxarri paperean: 80€

**Txintxarri aldizkaria: doan eta euskaraz**  
**Lasarte-Oriako etxe guztietan**

# Eskelak Txintxarrin

## 90 euro

### AZOKA TXIKIA

**ETXEBIZITZA**

**ALOKAIRUAN EMAN**

Loidibarren parkinean, BMn, 17 metro karratuko garajea alokatzen du. Telefonoa: 648 200 811

**LANA**

**ESKAINITZA**

Lasarte-Oriako ileapain-degi baterako pertsona baten bila gabilta. 615781116.

**ESKARIA**

Emakumea eskaintzen da etxean edo ospitalean pertsona adinduen zaintza egiteko, baita gauean ere. 632 198 705.

Goizetan lan egiteko pertsona arduratsua eskaintzen da, haurrak edo adineko pertsonak zaintzeko eta etxeo lanak egiteko. Telefonoa: 673 381 470

Adineko pertsonak edota umeak zaintzeko prest.

Esperientzia daukat. Harremanetarako, 671 908 616.

Pertsona zaharrak zaintzeko eskaintzen naiz. Externa bezala, orduka, gauean ospitaleetan, asteburuetan. Telefonoa: 943 40 40 15/606 66 10 48.

**SALEROSKETA**

**SALDU**

Kotxe berria saltzen da, Mikrokrar marka, karnetik gabea. Interesatuak deitu 608 417 794 edo 670 236 356 telefonoetara.


**HEZKUNTZA**

Klase partikularrak eman edota haurrak zainduko nituzke. 609 259 102

**BESTELAKOAK**

8 urteko ume batek gitarra eta bateria bat hartuko lituzke. 943 362 614.

### MANTTANGORRI HIRIBUSA



### Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

**txintxarri**

[www.txintxarri.eus](http://www.txintxarri.eus)

**Argitaratzailea**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
20160 LASARTE-ORIA  
G-20407557

**Administraria**

Nerea Garziarena.

**Erredakzioa**

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez,  
Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

**Publizitatea**

Iratzi Zatarain.

**Laguntzaileak**

Unai Muñoa, Gorka Lasa,  
Mailu Arruti, Asier Odriozola,  
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,  
Maider Galardi, Mikel Yarza,  
Nerea Segura eta Aizpea Amas.

**Banatzaileak**

Ioar Gainza, Egoitz Epelde,  
Iñigo Ibarburu, Mikel Valdes,  
Naiara Goikoetxea.

**Informatikoa**

Beñat Gonzalez

**PUBLIZITATEA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (106)  
publizitatea@ttakun.eus

**EGOITZA NAGUSIA**

Ttakun Kultur Elkarte  
Geltoki kalea 4  
Tel.: 943 37 14 48 (104)  
WhatsApp: 688 68 35 10  
txintxarri@txintxarri.eus

**Inprimategia**

Zeroa Multimedia, S.A.

**Lege Gordailua:** SS-513/94

**ISSN:** 1134-0053

**Tirada:** 8.000 ale

BABESLEA



**LASARTE-ORIA**  
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA  
DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLITICA LINGÜISTICA



Gipuzkoako Foru Aldundia

# AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

## OSTIRALA 19

### LASARTE-ORIA Musika

Ska, Reggae eta R&B saioa eskainiko dute.

Totx taberna, 22:30ean.

### USURBIL Aurkezpena

Tadamun taldearen aurkezpena egingo da. Ostean, Xabier Yurramendik Giza eskubideen begirada Txapasen hitzaldia eskainiko du.

Sutegi Aretoa, 19:00etan.

### HERNANI VI. Bakailao Astea

VI. Bakailao Astea dela eta, Rockalean taldeak erdiguneko kaleak alaituko ditu. Kaleetan zehar, 19:00etatik 21:00etara.

## LARUNBATA 20

### LASARTE-ORIA 50. urteurrena

Erketz EDTk bere 50. urteurrenoko azken ekintzak egingo ditu. 17:00etan, dantzarien desfilea izango da eta 18:00etan emanaldia. Eguraldi txarra eginez gero, Manuel Lekuona kultur etxean egingo litzateke.

Okendo plaza, 17:00etatik aurrera.

### USURBIL Mundualdia

Aniztasunaren balioa aldarrikatu eta plazaratzeko asmoz, Mundualdia izenburupean hainbat ekintza antolatu dituzte herritarrek eta Usurbilgo Udalak elkarlanean:

12:00etan, Alkatearen agurra, eta sarrera banderekin.

13:00ak aldera, munduko jakiak.

19:30ean, Olana Lissen kontzertua.

Frontoian, 12:00etatik aurrera.

### HERNANI Etxebizitzaren astea

Hernaniko Kaleratzeak Stop taldeak antolatua, Etxebizitzaren astea egin dute. Ekintzekin amaitzeko:

13:00etan, *Kale gorrian* kale antzerkia eskainiko du Barsani konpainiak, Kaxkoko balkoi bat.

20:30etik 22:00etara, Bertsolariak eta raperoak izango dira, Tilos plaza.

23:30etik 01:30era, Kantautoreak, eta J. Tiro eta El Quinto Con Tenedor taldearen emanaldia, Tilos plaza.

Hernani 13:00etatik aurrera.

### ANDOAIN Martin Zalakain ikuskizuna

Argia dantza taldeak *Martin Zalakain* dantza eta antzerki ikuskizuna eskainiko



**LASARTE-ORIA Ipuin kontalariak.** Pello Añorgak ikasturte honetako ipuin kontaketa saioei hasiera emango die 4 eta 5 urteko haurrei zuzendutako ipuin kontaketaekin. Pello Añorga eta Kontu Kantoiko lagunak izango dira aurtien ere haur eta gaztetxoak abentura ezberdinetan murgilduko dituzten ipuin kontalariak. Saioak puntual hasiko dira eta haurrek bakarrik egon behar dute. Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegia, osteguna, 18:00etan.

du. Harkaitz Canok Pio Barojaren *Zalacain el aventurero* lanaren egokitzea egin du eta Ander Lipusek zuzendu du. Sarrera, 12 euro.

Bastero kulturunea, 20:00etan.

## IGANDEA 21

### LASARTE-ORIA Bulego ibiltaria

Lasarte-Oriako alkatea eta hainbat batzordeburu herritarren proposamenak eta kexak jasoko dituzte Herritarren Bulego Ibiltarian. Bitartean, haurrentzako puzgarriak eta tailerrak ere izango dira.

Isla plaza, 10:30etik 13:30era.

### LASARTE-ORIA 50. urteurrena

Erketz EDTk bere 50. urteurrena borobiltzeko dantzari, dantzari ohi eta lagunekin bazkaria egingo du.

Michelin kirol gunea, 14:00etatik aurrera.

### DONOSTIA Aspanogi urteurrena

Aspanogi elkarteak bere XX. urteurrena ospatuko du. Eguerdian *Pirritx*, *Porrotx* eta *Marimotots* Aspanogirekin kantari ikuskizuna izango da. Dinbi Banda eta Ostadarreko Ipar Martxa taldea ere izango dira. Sarrera, 10 euro. Kursaal aretoa, 12:00etan.

### OIARTZUN Kontzertua

Alboka Abesbatzak kontzertua eskainiko du Lartaun abesbatzarekin batera. Udaletxe aretoan, 12:30ean.

### USURBIL Mundualdia

*La mochila invisible* dokumentalaren proiektzioa, Bidez Bide elkartearen eskutik Mundualdiaren barruko ekintza.

Sutegiko auditorioa, 18:30ean.

### USURBIL Organo kontzertua

Giula Biagetti italiarrak organo kontzertua eskainiko du.

Salbatore eliza, 19:00etan.

## ASTELEHENA 22

### LASARTE-ORIA Mahai-ingurua

"Las migraciones internas y su aportación al desarrollo de Gipuzkoa (1950-1975)" mahai-ingurua egingo da. Luis Castells, Jose Angel Sanchez, Ezequiela Albarran eta Amaia Izaola izango dira hizlariak. Ramón Rubial fundazioak antolatutako ekintza.

Ama Guadalupe Extremadura etxea, 19:00etan.

## OSTEGUNA 24

### LASARTE-ORIA Ipuin kontalaria

Pello Añorgak ipuinen munduetan barrena eramango ditu 4 eta 5 urteko txikiak.

Manuel Lekuonako haur liburutegia, 18:00etan.

### LASARTE-ORIA Bilera

*Zertarako erabili nahi dugu Askatasunaren Parkea?* saio irekia egingo da.

A. Mercero aretoa, 18:00etan.

## ZINEMA

### LASARTE-ORIA

#### MANUEL LEKUONA

**Carmen y Lola**  
Ostirala: 22:00.

**Luis eta estralurtarrak**  
Igandea: 17:00.

**Yucatán**  
Igandea: 19:30.

### USURBIL

#### URBIL

#### Slender Man

Ostirala: 15:55,  
18:05, 20:15,  
22:45, 00:55.  
Larunbata: 15:55,  
18:05, 20:15,  
22:45, 00:55.  
Igandea:  
15:55, 18:05,  
20:15, 22:45.

### First Man - El primer hombre

Ostirala: 16:10,  
19:05, 22:00.  
Larunbata: 16:10,  
19:05, 22:00.  
Igandea: 16:10,  
19:05, 22:00.

### Escuela para fracasados

Ostirala:  
16:30, 18:55,  
22:25, 00:50.

Larunbata:  
16:30, 18:55,  
22:25, 00:50.

Igandea: 16:30,  
18:55, 22:25.

### La casa del reloj en la pared

Ostirala: 15:45,  
18:05, 20:25.

Larunbata: 15:45,  
18:05, 20:25.

Igandea: 15:45,  
18:05, 20:25.

**Smallfoot**  
Ostirala: 16:00,

18:15, 20:30.  
Larunbata: 16:00,  
18:15, 20:30.  
Igandea: 16:00,  
18:15, 20:30.

### La sombra de la ley

Ostirala:  
21:30, 00:15.

Larunbata:  
21:30, 00:15.

Igandea: 21:30.

### Venom

Ostirala:  
17:00, 18:00,  
19:30, 22:10.

Larunbata:  
17:00, 18:00,  
19:30, 22:10.

Igandea:  
17:00, 18:00,  
19:30, 22:10.

### Ola de crímenes

Ostirala: 17:00,  
19:15, 20:35,  
22:50, 01:00.

Larunbata: 17:00,  
19:15, 20:35,

22:50, 01:00.

Igandea:  
17:00, 19:15,  
20:35, 22:50.

### Ha nacido una estrella

Ostirala: 21:20,  
00:05, 00:40.

Larunbata: 21:20,  
00:05, 00:40.

Igandea: 21:20.

### Christopher Robin

Ostirala: 15:45.  
Larunbata: 15:45.

Igandea: 15:45.

### Johnny English: De nuevo en acción

Ostirala:  
22:45, 00:50.

Larunbata:  
22:45, 00:50.

Igandea:  
22:45.

### La monja

Ostirala: 00:55.  
Larunbata: 00:55.



### LABURPENA

### Luis eta estralurtarrak

**Zuzendari eta gidolariak:** Christoph Lauenstein eta Wolfgang Lauenstein. **Herr.:** Alemania (2017). **Musika:** Martin Lignau, Ingmar Süberkrüb. **Ekizlea:** A.Pictures Film, TV Production / Fabrique d'Images / Ulysses Filmproduktion. **Iraupena:** 86 minutu.

## Laguntxo berriekin azpikeriatan

Estralurtar dibertigarri buruzko marrazki bizidunen filma ikusi ahalko dute Lasarte-Oriako haurrek.

*Niko* eta *¡Upsss! ¿Dónde está No...?* film arrakastatsuen ekoizleek egindako lana da eta Christoph eta Wolfgang Lauenstein anaiek zuzendu dute filma. 1989an, *Balance* pelikularekin, animaziozko film labor onenari emandako Oscar saria jaso zuten Lauenstein anaiek.

*Luis eta estralurtarrak* filmak Luis gaztearen eta bere laguntxo berrien abenturak erakusten ditu. Luisek ez du lagunik eta bere aitak, Armin Sonntag ufologoak, ez du sekula harentzako

denborarik izaten. Espazioan bizitza adimenduna badela frogatzearekin itsututa dago.

Egun batean, hiru estralurtar xeble agertuko dira bere etxetarian. Teledendako produktu bat nahi dute, Nubbi-Dubbi izeneko masaje-alfonbra. Luisek bere aitarengandik ezkatutako ditu, aita martetarrak arriskutsuak direla eta izoztu behar direla uste baitu.

Baina Diekendaker andereñoak Luisek hainbeste denbora bakarrik ezin duela deritzo eta gaztea barnetegi batera eramateko asmoz bere bila doa etxera. Mutila eta estralurtarrak ados jarriko dira elkarri laguntzeko.

KOMIKIA



PLAZAN BAZAN

# PLAZAN BAZAN

## baiez harrapatu!

Karramarro bihurriak zimikoa egingo dio emakumeari, ipurmasailetan. Zein bide hartuko du horretarako?




### Zabor-biltzaileen greba

Hau da kiratsal Ez al dira nazkagarriak irudiok? Ba, nazkagarriak izateaz gainera, ezberdinak ere badira. 12 alde daude bien artean. Ikusten al dituzu?



## Itzala

Ba al dakizu zer izen duen kirol honek? Ea, hitzak hamabi letra ditu, h-z hasten da, eta a-z bukatzen... Hal... Halt... Bail Hain zuzen! Halterofilia. Maripurtzil horretan ari da oraintxe, baina ez da batere trebea. Saiatzen den aldiko, diskoren bat erotzen zaio hagatik. Aurki ezazu irudiaren itzal zuzena.



Soluzioak: [www.plazanbazan.eus](http://www.plazanbazan.eus)  
Egilea: Garbiñe Ubeda

**ZATOZ GAUR TXUPI NAZ ORA**

**GAZTE KLUBA**

Ostiralero, 17:30etatik 19:30etara  
LH3 eta LH4, anbulategi gaineko  
2. solairuko hitzaldi aretoan.  
LH5 eta LH6, Oriarte eraikinean.

Taillerak (sukaldaritza, malabarak, magia), eskulanak, ikastaroak, txantxak, kuadrillan egiteko jolas programatuak, karaokea, ...

2018/19  
LH3-LH6

aisia@ttakun.eus  
943 37 14 48  
Geltoki kalea, 4

**Zozketa! Ttakuneko bazkide zara?**

Azaroaren 10ean ospatuko da Euskal Jaia herrian eta Ttakun Kultur Elkarteko bazkideen artean bi bazkari txartel zozketatuko ditugu.

Eman izena urriak 22a baino lehen: [harpidetza@ttakun.eus](mailto:harpidetza@ttakun.eus) helbidean, bulegoan, 943371448 zenbakira deituta edo 646824466 Whatsapp-ean.